

PALESTINA, LURRIK GABEKO HERRIA

prestakuntza unitatearen irakaskuntza plana

- Datak: 2026ko otsailaren 4tik martxoaren 5era
- Modalitatea: mistoa (presentziala/online)
- Ordu kop.: 37,5 ordu (1,5 ECTS kreditu)
- Hizkuntza: gaztelania eta ingelesa (itzulpen/interpretazio zerbitzua)
- Irakasle taldea: Bakea Duintasunarekin-OMAL erakundeetako kideak eta kolaboratzaileak

1. Aurkezpena

Ikastaroaren gaia da Palestina-Israel gatazkaren analisia eta gatazka horri eman beharreko erantzuna, eta sakondu nahi du gai horren inguruko euskal gizartearen etengabeko ikaskuntza prozesuan. Helburu nagusia da gako batzuk ematea, gatazka egungo testuinguruan ulertzeko, bai eta ikuspegi historiko eta sistemiko batetik ere. Gainera, tresna batzuk sortzen lagundu nahi du, erresistentzia zibil ez-bortitzeko estrategiak garatze aldera, Israeli presio egiteko, Nazioarteko Zuzenbidea bete dezan.

Ikastaroa egingo da modalitate mistoan: hiru saio presentzial eta lau asteko lana eGELAPI plataforma birtualean (<https://egelapi.ehu.eus/>). Saio presentzialak egingo dira UPV/EHUren Bizkaia Aretoan (Bilbo).

Ikastaro hau da UPV/EHUko kide guztientzat (irakasleak, graduako eta graduondoko ikasleak, eta TEKAZEL langileak), eta gaian sakondu nahi duten aktibista sozialentzat. Edukiek kontuan hartuko dituzte profil horiek guztiak.

Irakaskuntza plan honen atalak dira:

1. Aurkezpena
2. Gaitasunak
3. Helburuak
4. Edukiak
5. Lan metodologia
6. Lan plana
7. Ebaluazioa eta ziurtapena
8. Egutegia

2. Gaitasunak

Ikastaroa amaitzean, espero da parte hartu dutenak **gai izatea**:

1. Palestinako genozidioaren sorrera ulertzeko, begirada interseksional batetik.
2. Lurralde Okupatuaren gaurko errealitateari buruzko ikuspegi kritiko bat izateko (errealitate sozial nahiz politikoa).
3. Genozidioaren azpian dauden eta hura ahalbidetzen duten mekanismoak ulertzeko, bai eta palestinarren erresistentzia moduak ere.
4. Palestinaren aldeko jarrera solidario eta konprometitua edukitzeko.
5. Palestinarrekiko elkartasun esperientziak identifikatzeko, Euskal Herrian, Estatuan eta nazioartean.
6. Benetako bake prozesu bat abiatzeko zailtasun nagusiak zeintzuk diren jakiteko, bai eta prozesu horrek Lurralde Okupatueta izango lituzkeen inplikazioak ere.

3. Helburuak

Ikastaroa gaindituko duten ikasleek **ikaskuntza emaitza** hauek lortuko dituzte:

1. Gaurko egoera hobeto ulertzea eta indarrean dagoen apartheidaren analisisan sakontzea.
2. Gatazkaren sorrera, historia eta geopolitika azaltzea. Historiaren eraikuntzan eta narrazioan dagoen ikuspegi androzentrikoa identifikatzea.
3. Palestinako emakumeen rola aztertzea, bai historikoki bai egungo ikuspegitik, eta gatazkaren inguruko ikuspegi kritiko eta feminista bat planteatzea.
4. Gogoeta egitea pribilegio zuriei eta elkartasunari buruz, begirada antiarrazista batetik.
5. Palestinaren aldeko euskal mugimendura hurbiltzea.
6. Genozidioa ahalbidetzen duen egitura ekonomikoa ezagutzea.
7. Palestinarren eguneroko bizitza lazarriaz jabetzea; haien borrokak eta nozitzen duten errepresioa.
8. Etorkizuneko Palestinako Estatu baten oinarri teoriko, legal eta geopolitikoetan sakontzea.

4. Edukiak

Ikastaroa egituratu da **7 modulu** tematikotan, honela banatuta edukiak:

✓ I. MODULUA. Ikastaroaren aurkezpena - Gaurko egoera eta apartheid

Modalitatea: presentziala

- a. Ikastaroaren aurkezpena.
- b. Ponentzia: Egungo egoera Lurralde Okupatueta. Palestinarren eskubide

politikoak, sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta ingurumen arlokoak urratzea.

- c. Ponentzia: Apartheid egoera eta proiektu koloniala: nola ari diren garatzen eta zer eragiten duten biztanlerian.

✓ **II. MODULUA. Palestina-Israel gatazkaren sorrera, historia eta geopolitika**

Modalitatea: online

- a. Gatazkaren historia laburra, 1882tik gaurdaino.
- b. Genero ikuspegitik eginiko berrikuspen historikoa, aztertuz nola ikuspegi nagusiek ezkutatu edo minimizatu dituzten emakumeen eta beste genero identitate batzuen esperientziak, ekarpenak eta rolak.

✓ **III. MODULUA. Palestinako emakumeak erresistentzian**

Modalitatea: online

- a. Emakumeek Palestinako askapen borrokan izan duten parte-hartzearen historia.
- b. Eguneroko erresistentzia eta emakume palestinarren bizitza historiak.

✓ **IV. MODULUA. Nola eusten zaion genozidioari. Genozidioaren ekonomia**

Modalitatea: online

- a. Francesca Albanese kontalari bereziaren txostena: *Giza eskubideen egoera 1967tik okupatutako Palestinako lurraldeetan*.
- b. Genozidioa ahalbidetzen duen egitura ekonomikoa: espainiar eta euskal enpresen partaidetza.

✓ **V. MODULUA. Nazioarteko gizarte zibilaren ekimenak Palestinarekiko elkartasunean**

Modalitatea: presentziala

- a. Pribilegio zuriei buruzko tailerra, gogoeta egiteko eraiki nahi dugun elkartasun motari buruz, ikuspegi kritiko antiarrazista batetik.
- b. Solasaldia Palestinaren aldeko euskal mugimenduarekin.

✓ **VI. MODULUA. Egungo erresistentziak eta errepresioa Lurralde Okupatuetan**

Modalitatea: online

- a. Errepresio politikoa eta palestinarren espetxeratzea, arreta berezia jarritz adingabeen egoeran.
- b. Larrialdi sanitarioa Gazan.
- c. Gosea, gerra arma gisa.
- d. Israelgo Estatuaren propaganda: pinkwashing, purplewashing, etab.

✓ **VII. MODULUA. Irudika dezagun etorkizuna: itzultzeko eskubidea; bake elkarrizketak. Ikastaroaren ebaluazioa**

Modalitatea: presentziala

- e. Ponentzia: Biztanleria errefuxiatua eta barne errefuxiatuak. Itzultzeko eskubidea.

- f. Ponentzia: Bake elkarrizketak eta etorkizuneko Palestinako Estatu baten aukerak

5. Metodologia eta ikuspegiak

Jada esan den bezala, ikastaroa egingo da **modalitate mistoan**: hiru saio presentzial (arratsaldeetan) eta lau aste prestakuntza birtualean.

Modalitate mistoa aukeratzea ez da kasualitatea izan, uste dugulako oinarri egoki bat dela hainbat metodologia garatzeko, hezkuntza esperientzia osoago bat lortzeko eta ikastaroan parte hartuko duten pertsonengan inpaktu handiagoa lortzeko.

Saio presentzialak 4 ordukoak izango dira eta metodologia bat baino gehiago konbinatuko dituzte: ponentziak, tailerrak, lana taldeka eta osoko lana. Uste dugu bereziki garrantzitsua dela ikasteko eremu presentzialak zaintzea eta indartzea, funtsezko balio erantsia ematen baitiote hezkuntza prozesuari. Eremu horietan sustatzen dira zuzeneko interakzioa, esperientzia trukea eta jakintzaren erakuntza kolektiboa, ingurune birtualetan nekez erreproduzi daitezkeen elementuak. Kolektibitate ikuspegi horretatik, ikaskuntza aberasten dute, ez bakarrik edukiek, baita giza loturek, lankidetzak eta hezkuntza komunitate aktibo eta engaiatu baten eraikuntzak ere.

Online modalitateak baliabide bat baino gehiago erabiliko ditu; besteak beste, gomendatutako irakurketak, bideo ikustaldiak, web orrietan arakatzea eta hainbat formatutako gogoeta jarduerak, gai espezifikoei sakontzeko material osagarriaz gain. Modalitate honek aukera ematen du ikaskuntza denborak egokitzeke parte-hartzaile bakoitzaren bizitzara, eta bereziki garrantzitsua iruditzen zaigu hori, adin, ordutegi eta behar desberdinak dituen publiko batentzako ikastaroa delako. Gainera, material osagarria eskainiko da modulu bakoitzean, ikasleek kontsulta dezaten, gaiaren alderdi edo puntu jakin batzuetan sakondu nahi izanez gero.

Azkenik, gogoratu nahi dugu, bai modalitate presentzialean bai online modalitatean, ikastaroak aintzat hartzen dituela *Bakea Duintasunarekin* elkarteak Eraldaketa Sozialerako Hezkuntzan darabiltzan **6 ikuspegi politiko-pedagogikoak**:

- ✓ **Kritikoa**: Ezbaian jarriko da sakonki kolonialismoaren fenomenoak eta esplizituki seinalatuko dira Palestinan giza eskubideak urratzen dituzten pertsonak, erakundeak eta politikak.
- ✓ **Interseksionala**: Azpimarratuko da hainbat ikuspegi eta agenda (ekologia, feminismoak, antiarrazismoa, dekolonialitatea) gurutzatuko dituen analisi eta agentzia marko bat. Dekolonialitatearen eta antiarrazismoaren pisua nabarmenduko dugu, gatazkan eta elkartasun sareetan duten garrantziagatik.
- ✓ **Feminista**: Errealitatea aztertuko da ikuspegi antipatriarkal batetik, subjektu politikotzat hartutako emakumeen agentzia eta rola nabarmenduta; oso bereziki, Palestinako emakumeen erresistentzia moduak.

- ✓ **Subjektuetan oinarritutako ikuspegia:** Prozesuetako partaideak prozesuen protagonistatzat hartzen dira, ez hartzaile huts pasibotzat. Beraz, jakintzen arteko elkarriketa bilatzen da, jakintzen norabide bakarrekiko transmisioa baino gehiago.
- ✓ **Kulturartekoa:** Ahalduztzean, emantzipazioan eta elkarriketan oinarritutako subjektu askotarikoen gestioa, erritmoak, formatuak, denborak eta produktuak ezarrita detektatutako asimetrien arabera.
- ✓ **Sozio-afektiboa:** Taldearen zaintza eta integrazio dinamikak sartzea saio presentzialetan, beste formatu klasikoago batzuekin batera, arrazoiak eta emozioak lotzeko. Funtsezkoa da hezkuntza prozesua biziaraziko duten ikaskuntza guneak sostengatzea, ikaskuntza partekatutik sortzen diren giza loturak eta komunitate zentzua indartuta.

Ikastaroaren koordinatzaileen, *Bakea Duintasunarekin* elkarteko kideen eta UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoko teknikarien arduretako bat izango da, hizlari bakoitzarekin elkarlanean, ikuspegi pedagogikoa kritikoa eta parte-hartzailea izan dadin ziurtatzea, gogoetarako eta ezagutzen eraikuntza kolektiborako espazioak sortuta, bai eta jakintzak, proposamenak, ekimenak, alternatibak eta erresistentziak trukatzeko dinamikak ere, pentsamendu kritikoa sortu eta Palestinaren egungo egoerarekiko erantzukidetasuna eragite aldera.

6. Lan plana

Lan planak zazpi modulu ditu, ikastaroko edukien egitura eratzen dutenak (ikus 4. atala). Modulu bakoitzak bere unitate didaktiko espezifiko du. Moduluaren hasieran eskaintzen zaie ikasleei eta egin beharreko jarduerak, materialak eta ikaskuntza helburuak zehazten ditu.

Modalitatearen arabera (online edo presentziala), modulu bakoitzak konbinatzen ditu ponentziak, tailerrak, oinarritzko dokumentuen irakurketa, bideo ikustaldiak eta gomendatutako web orrien analisia, bai eta ikasitakoa aplikatzeko eta sendotzeko aukera ematen duen lan bat edo gehiago egitea ere.

Gainera, saio presentzial baten aurreko online modulu bakoitzean, saio horren gaiari buruzko edukia sartzen da, ikasleak hitzaldi/solasaldi/tailerrera iritsi daitezen oinarritzko ezagutza batzuekin.

Horrez gain, era askotako baliabide osagarriak eskaintzen dira —irakurketa gehigarriak, ikus-entzunezko materialak edo esteka interesgarriak—, landutako gaiak hobeto ulertzeko eta era sakonago eta autonomoago batean ikasteko.

7. Ebaluazioa eta ziurtapena

Atal presentzialari dagokionez, dagokion puntuazioa lortzeko baldintza bakarra da saioetara joatea. Online moduluei dagokienez, moduluen foro orokorraren eta egin beharreko lanen helburua da ikasleek sakontzea bai ikastaroaren edukietan bai gaiak analizatzeko eta ezbaian

jartzeko beren gaitasunean.

Ikastaroa gainditu eta akreditazioa jasotzeko, **ekarpen esanguratsuak egin beharko dira modulu bakoitzaren foro orokorretan eta proposatutako zereginen % 70 gutxienez gainditu beharko dira**. Eskatutako parte-hartzeari buruzko xehetasunak modulu bakoitzean zehaztuko dira.

Ikastaroa gainditzeko UPV/EHUko ikasleek hautazko 1,5 ECTS kreditu baliozkotzeko eskatu ahal izango dute. Aintzat harturik Akademia Antolakuntzako errektoreordearen 2012ko maiatzaren 21eko (EHAA, 119. zk., 2012ko ekainaren 19a) Erabakiaren bidez argitara emandako graduko ikasketetan kredituak transferitzeari eta onartzeari buruzko Arautegiaren 11.4 a) artikulua, **hautazko kredituak** amortizatu daitezke, Unibertsitateko errektoreordeak antolatutako prestakuntzako kultura jarduerak (ikastaroak, mintegiak, biltzarrak, etab.) egiteagatik. Jarduera horietarako, 1 kreditu - 25 ordu baliokidetasuna ezartzen da. Hori horrela, UPV/EHUko ikasleek, horretarako ezarritako epeetan, ikastaro hau gainditu ondoren jasotako ziurtagiria aurkeztu ahal izango dute matrikulatuta dauden ikastegiko idazkaritzan, kreditu hauek beren espedienteetan sartzeko, dagozkion izapideak egin eta prezio publikoak ordaindu ondoren.

8. Egutegia

Taulan ikus daitezke modulu bakoitzerako aurreikusitako dedikazio denbora eta ikastaroaren datak.

Jarduera	Modalitatea	Denbora	Datak
I. modulua	presentziala	4 ordu	otsailaren 4a, 16:00-20:00
II. modulua	online	7 ordu	otsailaren 8tik 14ra
III. modulua	online	6 ordu	otsailaren 15etik 21ra
IV. modulua	online	6 ordu	otsailaren 22etik 28ra
V. modulua	presentziala	4 ordu	otsailaren 26, 16:00-20:00
IV. modulua	online	6.5 ordu	martxoaren 1etik 5era
VII. modulua	presentziala	4 ordu	martxoaren 5a, 16:00-20:00